

KONTUEN AUDITORIA IRAKASKUNTZA GIDA**AZALPENA:**

Kontabilitate agiriaren kanpo egiaztapena da kontuen auditoria. Kontuen auditoriaren oinarriak azalduko dira, auditoria lanaren prozesu osoan zehar: plangintza, exekuzioa eta txostena prestatzerakoan. Auditoriak kontabilitate arlo desberdinetan duen garapena zehaztuko da: arloaren definizioa, auditoria helburuak, barne kontrol sistemaren azterketa eta ebaluazioa, prozedurak eta txostena igortzeko nabaritasunen analisia. Kasu praktikoeekin osatuko da.

EDUKIAK:

1. Kontabilitate ereduaren kanpoko kontrola: kontuen auditoria.
2. Auditoria arauak.
3. Urteko kontuen auditoriaren prozesua eta garapena.
4. Auditoriarako metodologia: aplikazio praktikoa.
 - a. Inbertsio-finantzaketa zikloa: aktibo ez-korrontea, ondarea eta pasiboak.
 - b. Epe laburreko zikloa: hornikuntza, ekoizpena eta banaketa.
 - c. Diruzaintza.
5. Auditoria Txostena.

GAITASUNAK:

- Kontuen auditoriaren oinarriak ezagutu eta ulertu, enpresek prestatzen dituzten informazio ekonomiko finantzarioaren fidagarritasuna aztertzeko.
- Auditorearen lan paperak prestatzeko gai izan, dagokion metodologia, arau tekniko eta tresnen erabilera menperatuz.
- Kontuen Auditoria Txostenaren edukia interpretatu.

IRAKASKUNTZA-IKASKETAREN EMAITZAK:

- Auditoria arauak erabiliz kontuen auditoria metodologia ulertu eta aplikatu.
- Lan paperak prestatu eta Auditoria Txostena idatzi.
- Auditoria tresnak erabiliz ariketa praktikoen ebazpena aurkeztu.

EGITARUA:**I ATALA: AUDITORIAREN OINARRIAK**

- 1 GAIA: Kontuen auditoriaren definizioa eta helburuak.
- 2 GAIA: Kontu-auditore lanbidearen arautzea.

II ATALA IKUSKAPENERAKO ARAU TEKNIKOAK

- 3 GAIA: Ikuskapenerako arau teknikoak.
- 4 GAIA: Etika eta independentzia.

III ATALA: AUDITORIA METODOLOGIA ETA KONTUEN AUDITORIA TXOSTENA

- 5 GAIA: Kontuen auditoria prozesua eta metodologia: plangintza, barne kontrolaren azterketa eta nabaritasuna.

IV ATALA: AUDITORIAREN LAN ARLOAK. APLIKAZIOA

- 6 GAIA: Salerosketa zikloaren auditoria.
- 7 GAIA: Inbertsio-Finantzaketa zikloaren auditoria.

V ATALA: KONTUEN AUDITORIA TXOSTENA

- 8 GAIA: Urteko Kontuen Auditoria Txostena.

IKASKETARI ATXIKITAKO ZEREGINAK ETA DENBORA

Zeregina	Denbora
Materiala irakurri; arlo garrantzitsuenak azpimarratu; zalantzak planteatu eta irakurgaiekin osatu.	30 ordu
Ariketak ebatzi	20 ordu